



ABELGORRIEN MUGIMENDUETARAKO TUBERKULOSI BALDINTZAK

2022ko urte hasieran Europar Batasunak Euskal Autonomía Erkidegoa tuberkulositik libre dagoen eremu izendatu zuen, Asturias, Galizia eta Kanariar Uharteekin batera. Izendapen honen ondorioz, abelgorrien mugimenduetarako tuberkulosi osasun baldintzak aldatu egin dira.

- **Irteera baldintzak:**

- **Gipuzkoako edozein ustialekutik abelgorriak mugitzeko ez da tuberkulina frogarik behar**, ez Gipuzkoara ezta beste inora ere.
- Norako ustialekuak frogak egitea eskatuko balu, hori kontu pribatua litzateke baina inolaz ere ez araudiak ezarritako baldintza. Ondorioz, txapelketaren baten edo beste ekitaldiren baten antolatzaileak tuberkulosi frogak egitea eska dezake.

- **Sarrera baldintzak:**

- Euskal Autonomia Erkidegoa, Asturias, Galizia eta Kanariar Uharteko ustialeku batetik badator **ez da jatorrian egindako tuberkulina frogarik** behar eta ezta sartu ondoren mugimenduari lotutako frogarik egin beharrik ere.
- Estatuko beste edozein ustialekutik badator, **ezinbestekoa izango da azken 30 egunetan egindako tuberkulina frogarekin etortzea**, edozein izanda norako ustialeku mota (gizendegi, larre, azoka, txapelketa, tratulari, e.a.) eta naiz eta denbora labur baterako etorri.

Donostian, 2022ko irailaren 28an.

Mikel Azpiri Luzar

NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINTZAKO SUSTAPEN ETA OSASUN
ZERBITZUBURUA

